

Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Ordizian, **2013ko azaroak 28an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO** BILERA egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea (abisatu du ez dela etorriko.)
---------------------------------	---

IDAZKARIA:


Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

ETORRI eta IRTENDA KOAK:

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

1. 2013ko urriak 31ko ahiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
2. Osoko bilkuran adierazteko finantza- eta aurrekontu-informazioa.
3. Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketan kontu ematea
4. Kreditu transferentzien onarpena
5. Ur-kontsumoen fakturazio era aldatzeko, Gipuzkoako Ur-Kontsultazioaren proposamena onartzea.
6. Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen Ordenantzaren 3. artikulua araberako gune berria ezartzea.
7. V. Plangintzaldiko (2013-17) Ordiziako Udalaren Erabilera Plana onartzea.
8. Nafarroa Etorbidea 5eko jabekideen lursail bat bidegorria egiteko Udalari Lagapenaren onarpena.
9. Majori kiroldetza behin-behineko edo konfidantzako lanpostuari lanaldia murrizteko proposamena onartzea.
10. Garapenerako lankidetzak laguntzak 2013
11. "Otsailak 27" Euskadi-Sahara koordinadora, erakundeari, eskatutako dirulaguntza UKATZEA,
12. Filipinetan izandako haizetea dela eta, dirulaguntza proposamena onartzea.
13. Uztailaren 25a, Santiago eguna, ordez jai egun lokala izendatzeko proposamena onartzea.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

Juan Maria Gereñuk ez du parte hartu 9. puntuan familiarterako harremana duelako.


GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.15ak.

AMAIERA ORDUA: 20:05ak.





Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2013ko urriaren 31ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2013ko urriaren 31ko ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- Osoko bilkuran adierazteko finantza- eta aurrekontu-informazioa.

21/2003 Foru Arauak ezartzen du, gutxienez hiru hilean behin Alkateak Osoko Bilkuran finantzen eta aurrekontuen inguruko informazioa emango duela.

Aurretik 2006-03-30ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko irizpenaren bidez eta ondoren 2006-03-30ko Udaleko Osoko Bilkuraren bidez onartu zen hiru hiletik behin ondorengo informazioa ematea:

- Funtzioen balantzea.
- Diru-sarreraren Aurrekontu Exekuzioa.
- Aurrekontu krediturik gabe burututako gastuak
- Udal Diruzaintzaren egoera



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

2013-11-20ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aztertu ondoren, Osoko Bilkurara bideratzen da 2013-11-20eko informazioa.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du banatu zela dokumentazioa eta inork ez duela inongo adierazpenik egin.

Udal Osoko Bilkura jakitun geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketen kontu ematea


Proposamena

Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua arabera, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketen berri eman behar da.

Ekainaren 27ko Udalbatzan kontu emandakoetatik aparte, onartutako dekretuak hauek dira:

Kreditu transferentziak

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
3	387	25.000,00
4	396	6.000,00
6	683	3.000,00
8	874	2.100,00
9	875	10.000,00
10	878	36.500,00
11	879	9.000,00
12	880	10.500,00



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Kreditu gehigarriak

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
----------	------------------	------------

Kreditu eransketak

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
----------	------------------	------------

Kredituak gaitzea

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
2	712	1.060,00
3	973	8.100,00
4	974	11.027,00
5	1078	22.150,00
6	1086	2.645,00
7	1087	38.768,00
8	1088	9.057,29
9	1089	184,60
10	1090	284,35

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


Kontuhartzaile jn.

Adierazi du banatu zela dokumentazioa eta inork ez duela inongo adierazpenik egin.

Udal Osoko Bilkura jakitun geratu da.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

4.- Kreditu transferentzien onarpena

Proposamena

Aurrekontu exekuzioaren azterketa egin ondoren ikusi da hainbat partida kreditu beharrea daudela eta bere zerbitzuko beste partidak ezin diotela kreditu hori eman.

Proposamena 2013-11-20ko Osoko bilkurako Gaiaren Batzordean aztertu da eta oneritzia eman zaio.

AKORDIO PROPOSAMENA

Ondoko kreditu transferentzia onartzea:

KREDITU TRANSFERENTZI 15. ESPEDIENTEA

KREDITUEN IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
214.434.11.01	Parke eta Lorategiko altzarien mantenimendua	1.500,00
623.442.10.04	Zakarrontzi selektiboen erosketa	2.650,00
623.454.11.04	Jaietako tresneria (4 orga egin)	1.700,00
625.511.00.01	Kaleko altzarien erosketa (3 bizikleta-aparkatzaile)	890,00
		6.740,00


KREDITUEN MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
620.434.11.01	Arbolen erosketa eta landaketa	3.540,00
214.511.00.01	Kaleko altzarien mantenimendua	1.500,00
601.511.00.02	Obra txikiak	1.700,00
		6.740,00

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Ez da eztabaidarik egon.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (BILDU 6)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Ur-kontsumoen fakturazio era aldatzeko, Gipuzkoako ur-Kontsurtzioaren proposamena onartzea.

Proposamena

Ordiziako Udalak, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak egindako proposamenaren arabera eta Gipuzkoako Ur Kontsurtzioko Uren Zerbitzuaren Ordenantza Erregulatuzailearen ezarketaren inguruan erabaki du:

- 2014-ko Urtarrilak 1-etik aurrera hau eguneratu egingo dela eta kontsumo-tarteak, etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoan izango direla.
- Beharrezko xedeetarako, etxebizitza bakoitzean bizi den biztanle kopurua, Udalak emandako azken erroldan azaltzen direnak izango dira.
- Pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango da (330 litro, biztanle eta eguneko baino gehiago)


Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du aurreko Osoko Bilkuran pendiente geratu zela gaia azken parrafoa ulertzen ez zelako, eta zalantza hau aklaratu du esanez 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera fakturazio era aldatuko dela, eta kontsumo tarteak, etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoan izango direla, eta pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa,



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

goiko tartekoa izango dela (330 litro, biztanle eta eguneko baino gehiago). Aklarazio hau eginda galdetu du ea zegoen zalantza argituta geratu den, eta inongo objeziorik ez dagoenez, bozketara pasatzen da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (BILDU 6, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa:1 (PSE-EE (PSOE))

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen Ordenantzaren 3. artikulua arabera gune berria ezartzea

Proposamena

Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen indarreko Ordenantzaren berri ematen da. Ordenantzaren 3. artikulua zehazten du zein kaletan dagoen aparkaldi mugatua eta zenbat aparkaleku dauden mugatuta. Eremu horietan aparkatzeko ordubeteko gehienezko muga ezarriko da, Garagartza Plazan izan ezik, bertan gehienez ordu erdiko denbora tartean aparkatuta utzi ahal izango da ibilgailua.


Aipatutako Ordenantzaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, osoko bilkuraren akordio bidez eta Ordenantzak aldatzeko tramiteak bideratzeko beharrik ez dagoenez, alde aurretik dagozkion txosten teknikoak edukita, dagoeneko zehaztuta dauden kaleetarako aparkaldi mugaturako egunak eta orduak aldatu ahal izango dira.

Halaber, eta prozedura berdinari jarraiki, 3. artikuluan adierazi diren aparkaldi mugatuko bideak aldatu ahal izango dira, gehiagotuz edo murriztuz, eta baita berriro finkatu edo kendu ere.

Espedientearen barnean dago Udaltzainburuaren txostena. Goierri kalean eremu urdina ezartzea komeni dela jakinarazten du txostenean.

Bestalde, Ordenantzaren 3.artikuluan Euskalerrria kalean agertzen diren 2 aparkaleku dagoeneko ez daude.

2013ko azaroaren 11ko Tokiko Gobernu batzordeak Goierri kalean eremu urdin berria jartzeko proposamen honen aldeko jarrera azaldu du eta ontzat eman du.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

2013ko azaroaren 20 eguneko Osoko bilkurarako gaien Batzordearen oniritziarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

*** Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen Ordenantzaren 3. artikuluan sartzea, Goierri kalean 7.aparkaldi mugatua ezartzea.**

*** 3. artikulutik Euskalerrria kaleko 2. aparkaldi kentzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in:

Adierazi du Eskarabila auzoko hainbat merkatariek eskatuta, aztertu zela non izango zen posible gune urdin bat ezartzea, baita ere kontuan hartu zen Urdaneta kalean epe gutxira erdi-peatonalizatzeko obrak ere hasiko direla; arazoa konpontzeko ikusten da Goierri kale ondoan dagoen aparkalekuan jartzen badira gune urdin batzuk horiek eman dezaketela zerbitzua bai Eskarabila auzoan dauden beharrei eta baita Urdaneta kaleko beharrei, eta guztira 7 aparkaldi mugatu berri izango lirateke; honekin batera aldaketa hau aprobetxatu nahi da Ordenantzan Euskalerrria kalean agertzen diren 2 aparkaleku dagoeneko gune urdinak bezala ez daudenak zamalan bezala jarri direlako, ordenantzatik kentzeko.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

7.- V. Plangintzaldiko (2013-17) Ordiziako Udalaren Erabilera Plana onartzea.

Proposamena

Ordiziako Udalak Udal barruan Euskararen Erabilera sustatzeko Plana diseinatu du V. Plangintzaldirako (2013-17). 2013ko irailaren 17ko Euskara eta Hezkuntza Delegazioan onartu zen proposamena eta 2013ko urriaren 13ko Erabilera Normalizatzeko Batzordean (ENBA) aurkeztu zen.

Hizkuntza Politika Sailaren aldeko txostena jaso ondoren, ondorengoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

V. Plangintzaldiko (2013-17) Ordiziako Udalaren Erabilera Plana onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza andrea

Adierazi du V. Plangintzaldiko (2013-17) Ordiziako Udalaren Erabilaren Plan hau Udal Osoko Bilkurara ekarri aurretik, egin zen bilera batean talde guztiei banatu zitzaiela. Jarraitu du esanez Eusko Jaurlaritzaren plangintza baten barruan egin behar dela programazio hau eta atal desberdinak dituela, alde batetik jasotzen du Udalaren barruan eguneroko lana nola egin , eta hortik aurrera euskara nola sustatuta atal desberdinetan, eta hori guztia programatara eramaten da, programa hauetan beste eragile batzuek ere parte hartzen dute, ikastetxeak eta abar, plangintza hau 4 urterakoa izango da.

Bukatzeko adierazi du denak euskarari bultzada bat ematea alde daudela eta garbi dagoela honelako plangintzak onura dakartela euskara sustatzeko.


Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Nafarroa Etorbidea 5eko jabekideen lursail bat bidegorria egiteko Udalari lagapenaren onarpena.

Proposamena.

Nafarroa Etorbidea 5eko jabekideek bidegorria egiteko lursaila lagatzeko erabakia aurkeztu dute Udaletxean.

Lagapen honekin, dena osatzeko Nafarroa Etorbide 8 eta 9 zenbakien lagapena falta dela, eta hori lortzeko dagozkion jestioak egiten ari direla, hori dena kontuan hartuta, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Nafarroa Etorbidea 5eko jabekideen 286,29 m².inguruko lursaila bidegorria egiteko doan laga dadin onartzea.

2.- Eskritura publikoak formalizatzeko prozedura eta Erregistroko gastuak, edo lagapenak lekarkeen beste edozein gastu Ordiziako Udalak ordainduko ditu.

3.- Alkateari ahalmena eman behar diren agiri guztiak sinatzeko.


Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in.

Adierazi du gaia ezaguna dela guztientzat, eta apurka bada egindako lanak ematen ari direla fruituak; azpimarratu du pendiente daudela Nafarroa Etorbidea 1-9 eta 10eko lagapenak, eta 9 eta 10eko jabekideekin negoziaketak oso aurreratuta badaude ere, 1ekoekin ziur asko beste era batean egin beharko dela. Bukatzeko esan du hau dena plano batean jasota dagoela, eta nahi duenentzat informazio hori eskuragarri dagoela.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Behin-behineko edo konfidantzako lanpostua betetzen duen E.G.ren lanaldia murrizteko proposamena onartzea

Proposamena

Honako hau ikusita:

Onartuta dagoen Ordiziako Udaleko lanpostuen zerrendaren arabera, E.G. jaunak behin-behineko edo konfidantzako lanpostua betetzen duela, kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak kudeatzeko aholkulari bezala, bere lanaldia %100ekoa izanik.


2013ko urriaren 16an eginiko Majoriko Ezohiko Junta Orokorrean honako hau onartu zela:

Majoriko zuzendari lanposturako Amaia Zabaleta andrea kontratatzea; une honetan Arrasateko polikiroldegian kirol teknikari bezala lanean ari da baja bat kubritzen, eta Arrasateko polikiroldegitik eskatu dute hangoa bukatu arte erdia han eta erdia hemen egitea; hori dena kontuan hartuta lanaldi erdira hasiko da lanean 2013ko azaroaren 4tik aurrera eta lanen traspasoa egiten E. G. jaunak lagunduko dionez, eta lanaldi erdira dagoen bitartean, Eñaut Gereñu jaunaren lan kontratua azoaren 4ko ondorioekin lanaldi erdira pasatzea, eta zuzendaria lanaldi osora hasten denean, E. G. jaunaren lan-kontratua bertan behera uztea; hori dena kontuan hartuta, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Azaroaren 4ko ondorioekin E.G. jaunaren lan-kontratua %50eko lanaldira pasatzea, eta zuzendari berria lanaldi osora hasten denean, lan-kontratua bertan behera uztea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du akordio proposamena egin zenean honela jartzen ez badu ere oraindik datu hori ez zegoelako, Majoriko zuzendari berria azaroaren 17an hasi zela lanaldi osora Arrasaten bere lana bukatu eta gero, eta horregatik azaroaren 4ko ondorioekin E.G. jaunaren lan-kontratua %50eko lanaldira pasatzea bozkatzuz gain, baita proposamenean erantsiko dela E.G. jaunaren lan-kontratua 2013ko azaroaren 30ean bertan behera uztea.

Santamaria jn.

Adierazi du, nahiz eta bere taldeak ulertu, hasieran zuzendari berriak transmisioa egiteko laguntza bat behar izatea, bestalde azaldu nahi duela behin-behineko edo konfidantzazko lanpostuak kontratazea legearen arabera bidezkoa bada ere, aurreko legealditan eta Bildu alderditik oso kritikatu izan den gaia bat izan dela, eta hori gogorarazi nahi duela.

Beraz, bozketan jarritako puntua honela idatzia geratu da zuzendu ondoren:

Proposamena

Honako hau ikusita:


Onartuta dagoen Ordiziako Udaleko lanpostuen zerrendaren arabera, E.G. jaunak behin-behineko edo konfidantzazko lanpostua betetzen duela, kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak kudeatzeko aholkulari bezala, bere lanaldia %100ekoa izanik.

2013ko urriaren 16an eginiko Majoriko Ezohiko Junta Orokorrean honako hau onartu zela:

Majoriko zuzendari lanposturako Amaia Zabaleta andrea kontratatzea; une honetan Arrasateko polikiroldegian kirol teknikari bezala lanean ari da baja bat kubritzen, eta Arrasateko polikiroldegitik eskatu dute hangoa bukatu arte erdia han eta erdia hemen egitea; hori dena kontuan hartuta lanaldi erdira hasiko da lanean 2013ko azaroaren 4tik aurrera eta lanen traspasoa egiten E. G. jaunak lagunduko dionez, eta lanaldi erdira dagoen bitartean, Eñaut Gereñu jaunaren lan kontratua azoaren 4ko ondorioekin lanaldi erdira pasatzea, eta zuzendaria lanaldi osora hasten denean, E. G. jaunaren lan-kontratua bertan behera uztea; hori dena kontuan hartuta, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Azaroak 30ean-kontratua bertan behera uztea.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Bozketa pasatuta, Juan Maria Gereñu jaunaren bere ahaidetasun egoera kontuan izanda, ez du parte hartuko bozketan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 5 (BILDU 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10, 11, 12 eta 13 puntuak Udal Osoko Bilkurako Gai Batzordean diktaminatu gabe etorri direnez, presazko eran sartu dira eguneko gai zerrendan, eta aztertu aurretik presazkotasuna bozketatu da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: erabatekoa.

Presazkotasunari Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0


Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako putuen presazkotasuna onartutzat eman du.

Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- Garapenerako lankidetzak laguntzak 2013

Proposamena

Kooperaziorako proiektuak garatzeko gobernu kanpoko erakundeei diru laguntzak emateko arautzen duen arautegiarekin bat egin da, eta 2013 ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, 15 proiektu aurkeztu dira.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)


Honetarako aurrekontuaren partida **77.672,4 eurokoa** da.

Proiektuak aztertu ondoren honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA:

Ondoren aipatzen diren diru-laguntzak onartzea, honako erakunde eta proiektuei:

1. MEDICOS MUNDI GIPUZKOA. Gujarat-eko hegoaldeko landa guneeetan bizi diren tribuetan mespretxatuta dauden emakumeen elkartean indartzea. India
Diru-laguntza: 8.970,77 euros
2. PHAGMA DRÖLMA, TIBETAR HERRIAREKIKO ELKARTASUN ELKARTEA. Emakumeak, garapena eta ingurumena: komunitate tibetar ahulenak lehen planoan- Phuntsokling (II. Fasea). India.
Diru-laguntza: 9.592,5 euros
3. MUGEN GAINETIK. Impulsando alternativas de desarrollo justo y sostenible en comunidades indígenas y campesinas. Guatemala
Diru-laguntza: 10.550,6 euros
4. NAZIOARTEKO ELKARTASUNA. Mujeres organizadas de Chinandega norte: de los planes a la acción. Nicaragua
Diru-laguntza: 8.799,76 euros
5. TAUPADAK. Empoderamiento de las mujeres indígenas para contribuir a la seguridad alimentaria de sus familias. Bolivia
Diru-laguntza: 8.145,59 euros
6. FUNDACIÓN MUNDUBAT-MUNDUBAT FUNDAZIOA. Fortalecida la capacidad de análisis para la incidencia de las integrantes en la red de mujeres mesoamericanas (Fase 2) El Salvador.
Diru-laguntza: 10.450,05 euros
7. BAKERAKO LANKIDETZA BATZARREA - ASAMBLEA DE COOPERACIÓN POR LA PAZ y APROCSAL. Santa Tecla udalerriko 10 komunitateetan oinarritzko sexu eta ugalketa osasun zerbitzuen eskuragarritasun baldintzak hobetzea. El Salvador.
Diru-laguntza: 10.559,54 euros
8. EUSKAL HERRIKO SERSO SAN VIATOR. Escolarización de niñas, niños y adultas y adultos de primaria. Burkina Faso
Diru-laguntza: 10.560 euros



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Ondoren aipatzen diren erakundeek aurkeztutako eskaerak ukatzea:

1. NAZIOARTEKO SOLIDARITZAKO FUNDAZIOA MARIAREN LAGUNDIA - FUNDACIÓN INTERNACIONAL DE SOLIDARIDAD COMPAÑIA DE MARIA. Haurren lehen hezkuntzarako eskubidea bermatzea. Congoko Errepublika Demokratikoa).
2. CALCUTA ONDOAN. Bulnerabilitate arrisku handiko pertsonentzako harrera integrala eta erreabilitazioa, 24, S.Paraganas eskualdeko nekazari- ingurunean. Calcuta, India.
3. GIPUZKOAKO OSCAR ROMERO SOLIDARITZA BATZORDEA. Eskolaurreko adina duten haurren eskolaratzea sustatzea eta generoagatiko bazterketa gutxitzea Centro Escolar Cantón El Rodeo ikastetxean, Tacuba udalerrian. El Salvador.
4. MANOS UNIDAS. Kara eskualdeko landa-herrietan ur edangarria izateko aukera areagotzea eta saneamendua hobetzea. Togo.
5. ACTIV@S POR UN MUNDO SOLIDARIO AMS-MSH MUNDO SOLIDARIOA HELBURU. Gaitasun urrituak dituzten gazteen integrazioa lortzen Diriamban. Nikaragua.
6. ROPKA. Nangchen- Tibet Konderriko baserritar eta nomaden osasunerako eskubidearen sustapena, Tibetar Medikuntza Tradizionalaren indartzearen bidez eta kultura eta ekosistema tibetarraren babesaren bidez.
7. TXIMELAGUA. Saltoka proiektua: fisioterapia pediatrikoa nikaraguan

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza Andrea

Azaldu du irizpideetan aldaketak izan direla, eta horregatik orain genero ikuspegia aspektua ere kontuan izaten dela. Zerrendatu ditu onartu diren proiektuak eta bukatu du esanez, datorren hilaren 18an egingo dela ekitaldia onuradunei laguntzak emateko.


Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- “Otsailak 27” Euskadi-Sahara koordinadora, erakundeari, eskatutako dirulaguntza UKATZEA,

Proposamena

Ordiziako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Programan, Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak, arautzen dituen araudia jarraituz, eta 2013 urteko ekitaldiari dagokionez,

Honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

“OTSAILAK 27” EUSKADI-SAHARA KOORDINADORA, erakundeari, eskatutako dirulaguntza UKATZEA, “Sahararen aldeko 10. Euskal karabana: Piztu itzaropena” aurrera eramateko.

Hau 10. Karabana izanik, aurreko aldietan bezela, Tindufeko Kanpaleketan dagoen Saharar errefuxiatuei elikadura-laguntza, sendagai eta premiazkoak diren beste produktuak bidaltzea du helburu.

Urtero gauzatzen den ekintza denez, larrialdi izaera ez duela da ukatzearen argudioa.


Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza andrea:

Adierazi du “Euskadi-Sahara koordinadora erakundea”k, ikusita zituen arazo ekonomikoak eta geroz eta zailtasun gehiago dituela etxetan umeak hartzeko, planteamendu bat aurkeztu zuela Udaleku edo kolonia moduak antolatzeke, Oiangu etxean begiak jarritz. Udalaren erantzuna izan zela Oiangu etxea ez dagoela kondiziotan eta gainera Udalak ez dituela baliabide ekonomikoak horrelako proiektu bati aurre egiteko, eta hori argitu eta gero eskaera formal bat egin zuela, eta kontuan hartuta plangintza honetan Udalekuen finantziaketa ez dela aurikusten, horrela adierazi zitzaizela eta horregatik eskaera ukatzea proposatzen dela.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du:

13.- Filipinetan izandako haizetea dela eta, dirulaguntza proposamena onartzea.


Alkate jn.

Adierazi du puntu honek azalpen bat ere behar duela, kontua da joan den astean taldeetako bozeramaleak eta zinegotzi batzuk bildu zirela ikusteko Filipinetan izandako haizetearen ondorioz Udalak zer egin, eta baita honekin batera Filipinetako enbaxadorekin ere hitz egin zela. Udal honek Filipinarekin duen harremana ikusita hainbat planteamendu jarri ziren mahai gainean, eta azkenean hiru bide desberdin hauek daudela ikusi zen: zer egin epe motzera, ertainera eta luzera. Epe motzera emergentzizko laguntza bat ematea, epe ertainera, hau da gabonen bueltan kanpainaren bat egitea laguntza lortzeko, eta epe luzera, hau da datorren urteari begira Udalak garapenerako ematen dituen dirulaguntzetan Filipinetako proiektuetarako zerbait aurreikusi. Epe motzera ikusita 2013ko emergentzizko partidaren oraindik badagoela 2.000,00 euro inguru, adostu zena da

“Médicos Sin Fronteras” erakundearen bitartez honelako larrialdietan duen esperientzia eta ematen duen segurtasunagatik, eta enbaxadorekin ere honela hitz eginda, orain behar den materiala (sendagaiak, janariak, eta abar) bideratzeko, 2013ko emergentzizko partidaren konkretuki geratzen diren 1.967,56 euro berehala bideratzea, eta hori da gaurko Osoko Bilkurara ekartzen den proposamen konkretua.

AKORDIO PROIEKTUA:

Filipinetan izandako haizetea dela eta, 2013ko emergentzizko partidaren geratzen diren 1.967,56 euro “Médicos Sin Fronteras” erakundearen bitartez bideratzea behar den materiala (sendagaiak, janariak, eta abar) erosteko.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du:

14.- Uztailaren 25a, Santiago eguna, ordez jai egun lokala izendatzeko proposamena onartzea.

Proposamena

Gipuzkoako Lan Lurralde Ordezkaritzako Lan antolamenduko atalburuaren errekerimendua, Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzatik jasotako jakinarazpena, 2014. urterako lan egutegia aldatuko duen Dekretua tramitatzen ari dela eta uztailaren 25a, Santiago eguna, urriaren 25aren ordezko jai-eguntzat izendatuko dela.


Horregatik, Santiago eguna Euskadiko Autonomia Erkidego osoan jaia izango denez, komeniko litzateke Ordizia udalerrirako Santiago egunaren ordezko jai-egun lokala ahalik eta azkarren izendatzea eta Lan Lurralde Ordezkaritzara helaraztea, horrela behin Autonomia Erkidegoko lan egutegiaren aldaketa argitaratuz gero, Gipuzkoa lurraldeko jaiegunen egutegiaren aldaketa segituan argitaratu ahal izateko.

Horrenbestez, hauek dira izendatutako jai egun ofizialak:

Euskadin: Urtarrilaren 1 eta 6, apirilaren 17,18 eta 21, maiatzaren 1, uztailaren 25, abuztuaren 15, azaroaren 1, abenduaren 6, 8 eta 25.

Gipuzkoan: Uztailaren 31.

Gipuzkoako lan, enplegu eta gizarte politiketako Lurralde Ordezkaria eskuduna da Gipuzkoako Lurralde Historikorako lanerako bi egun baliogabe, ordainduak eta errekuperatu behar ez direnak, tradizioz tokiko jaiegunak izan ohi direnak, ezartzeko, horretarako, alde zurretik dagozkien udaletako osoko bilkurek proposamena egin behar dutela; hori guztia aipatutako Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 9ko 381/2013 Dekretuko 2. artikuluan ezarritakoarekin arabera, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen 191/2013 Dekretuaren 19. artikularen arabera (2013-04-24ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*).

Beraz, Udal Osoko Bilkurari dagokio herriko jai eguna izendatzea.

2014ko azaroaren 25eko Administrazio delegazioak uztailaren 24 Ordiziako udalerriko jai egun izendatzeko aldeko irizpena eman zuen.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2014 urterako Ordiziako udal herriko jai eguna uztailaren 24a izendatzea.

Bigarrena.- Izendatutako jai egunaren jakinarazpena Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Lan Antolamenduko atalburuari helaraztea, GAOn argitaratu ahal izateko, eta jai egunak ezartzeko.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko eta bere Lurralde Historikoetako eta udalerriko egutegi ofizialetan jasotzen diren jaiegunak aintzat hartu, Ordiziako Udaleko Lan egutegia 2014rako finkatu ahal izateko, hau da, urteko lanaldia banatu eta ordutegiak zehazteko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du 2014. urterako lan egutegia aldatuko duen Dekretua tramitatzen ari dela eta uztailaren 25a, Santiago eguna, urriaren 25aren ordezkari jai-eguntzat izendatuko dela, eta jai lokal bezala izendatuta zegoen uztailaren 25a ordezkari, beste jai egun lokala izendatu behar dela. Bukatzeko adierazi du egiten den proposamena, uztailaren 24a, langileen ordezkariekin adostuta dagoela.

Bozketa


Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du:

15.- Eskaerak eta galderak

Santamaria jaunak adierazi du gaurko Osoko Bilkuran Euskera Erabilera Plana onartu dela, eta aprobetxatuz abenduaren 3an "Euskararen Nazioarteko Eguna" eguna dela, bere taldeak adierazpen bat ekarri duela, eta mozio edo adierazpen bezala onartzea proposatu du.

Alkate jaunak adierazi du ziur asko eragozpenik ez dela izango, baina bere taldeak ere testua bazuen ere, ez duela mozio bezala Udal Osoko Bilkurara ekarri, zeren eta asmoa zen begiratzea eta beste taldeekin adierazpena adostea, eta EAJko adierazpena ezagutzen ez dutenez, proposatu dio bihar taldeak bildu eta testua adostea.

Garin Andreak EAJ taldeak ekarritako adierazpena irakurri du.

*"Euskararen Nazioarteko Eguna 2013
EBBren adierazpena*


(...) Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia (...)

(Koldo Mitxelena)

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da, Euskararen balio unibertsala aldarrikatzeko eguna da, eta euskararentzat beste hizkuntzen artean dagokion tokia aldarrikatzeko eguna. Ospatzeko eguna, eta euskara gero eta gehiagotan, gero eta eginkizun gehiagotarako erabiltzeko konpromisoa berresteko eguna.

Ugari dira euskarak ospatzeko dituen motiboak. Guztietan lehena, jakina, azken 30 urteotan izan duen hazkundera, bereziki ezagutzari dagokionez. Izan ere, 0,5 puntu urteko hazi da euskara azken urteotan, modu egonkor eta iraunkorrean. Baina erabilerari dagokienez ere, garbi hazi da euskara aldi berean, eta, are garrantzitsuagoa dena, lehen erabat arrotz zituen eremuetan erabiltzen da gaur euskara. Hazkunde horrek eraman du, hain zuzen ere, euskararen kasua nazioarteko eredu mailara, mundu zabaleko adituen aztergai izateraino.

Ospatzeko du euskarak, noski, biziberritze sendo horri bidea ireki dioten hiru faktoreek (lege babes nahikoa, hizkuntza politika eraginkor eta baliabidez behar bezala hornitua, eta herritarren atxikimendua, adostasun sozial eta politiko zabal batekin batera) modu koordinatuan eta iraunkorrean eragin dutela Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Izan ere, lurralde horretan izan duen hazkunde handiari esker hitz egin dezakegu, oro har, euskararen aurrerapauso nabarmen batez, Iparralde eta Nafarroako datuek bestelako norabide bat bistaratzen badigute ere.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Ospatzeko du euskarak, era berean, aurrerabide hori euskal gizartearen kohesioa sendotzea iparrorratz hartuta egin duela, ez beste hizkuntza baten aurka, are gutxiago beste hizkuntza baten hiztunen aurka. Aitzitik, hizkuntzen eta hiztunen arteko bizikidetzaren alde egindako bidea da euskararen biziberritzeko ahaleginean egin dena, eta hor dator, hain zuzen ere, euskarak ospatzeko duen beste motibo bat: ugari dira euskararen biziberritzeari ekarpena egin dioten herritarrak, herri erakundeak eta eragileak, eta ugari ez ezik askotarikoak ere bai, eta aniztasun eta pluraltasun hori da, hain zuzen ere, euskararen sustapenaren inguruko lankidetzak izan dezakeen oinarri emankorra. Euskarak denok behar gaitu, nor bere uste eta ideiekin, nor bere proposamen eta ekarpenekin, baina denok bat sustapenerako hizkuntza politika iraunkor eta eraginkor baten alde. Alde batera utzita, betiko, euskararen erabilera partidistak, euskarak politika behar baitu, ez politikakeria.

Eta euskarak denok behar gaituela esaten dugunean, euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, ezinbestekoa duen erabilera dugu, batez ere, gogoan. Euskara gurea baldin bada, gurea da, neurri berean, euskara erabiltzearen erantzukizuna, euskarak euskal hiztunengan baitu arnasbide bakarra. Gutariko bakoitzak bere gain hartu behar duen konpromiso hori, euskara gero eta gehiagotan, gero eta eginkizun gehiagotarako erabiltzekoa, berresteko eguna dugu, baita ere, Euskararen Nazioarteko Eguna.

Erabili dezagun, bada, euskara, eta landu dezagun elkarrekin euskara etorkizun oparo baterantz eramanez adostasun sozial eta politikoa zabal eta sakona.


Euskarak denok behar gaituelako, eta denok euskara behar dugulako.”

Alkate jaunak gogorarazi du euskara batzordeko zinegotzia ere falta dela, eta horregatik jasotzen dela EAJ taldeak ekarritako adierazpena eta bihar bilduko direla gai honi buruz adierazpen bateratua adosteko.

.....

Santamaria jaunak adierazi du atzo bere etxean jaso zuela atez ateko inguruan idatzi bat protokolo batekin batera, eta gai honen inguruan galdetu nahi duela lehenengoz ea eskatutako datu ekonomikoen kalkuloa eginda dagoen, eta testu horretan agertzen da portzentaia %36 zela uztailean eta orain %78^a dela, nahi lukeela jakin non oinarritzen diren datu horiek eta txostenik ematea dagoen; eta bestalde protokoloari dagokionez jasotzen diren 2 aktuazioak zertan oinarritzen diren eta zein den asmoa hau dena gauzatu ahal izateko.

Alkate jaunak erantzun dio esanez portzentai datuak, Sasietak bere web gunean publikatuta dituen datuak direla gainerako herrien datuekin batera, urrikoa %76koa zela, eta beraiek dituen azken datuen arabera %78ra igo dela, beraz eskuragarriak daudela eta publikoak direla. Atez ateko kostu ekonomikoaren kalkuloari buruz, esan dio egia dela Udal Osoko Bilkura batean eskaera hori egin zuela, baina oraindik ez dela banatu prestatu gabe dagoelako, zentzu honetan konfirmatu dio berari aste honetan pasatu diotela lehenengo zirriborroa eta behin betiko txostena prestatuta dagoen bezain laster banatuko zaiela herritar eta talde guztiei, eta txosten horretan azalduko dela lehenengo sistemaren kostua nondik abiatzen zen eta oraingo sistemaren kostua zein den. Idatzia eta protokoloari buruz Asenjo jaunak erantzungo diola.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Asenjo jaunak baieztatu du portzentai datuak Sasietan web gunean daudela, eta Udalak azken datuak dituen arabera %78a dela. Jarraitu du esanez nahiz eta Udalak lehenbailehen datu ekonomikoak eta abar eduki nahi lituzkeen, Sasieta ere lanez gainezka dagoela eta oraindik prestatu gabe dituela. Bestalde adierazi du Araba kalean jarri zela auzo konposta egiteko proba piloto bezala, eta bost konposta gune berriak ere jarriko direla, eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza gaur bertan jaso dela.

Protokoloari buruz, adierazi du orain arte egunero atez atekoa biltzeko zerbitzuaz gain, kalean gaizki botatzen diren poltsak jasotzeko ere egunero egiten dela zerbitzua eta horrek baita gainkostu bat duela, eta hemendik aurrera gaizki botatzen direnak kalean egongo direla, eta ostegunetan jasoko direla, eta zergatik ostegunetan, egun horretan errefusak jasotzen direlako eta identifikatzen diren puntu kutsatuentzat jarraipen berezia egingo dela (portalekoekin bilerak eta dagozkion neurriak hartu)

Santamaria jaunak aipatu du protokoloan jartzen duela jarraipena egiteko bi bide izango direla: bata barne maila eta bestea jarraipen batzordea, herritarrek osatuta, eta galdetzen du hori nola gauzatuko den.

Asenjo jaunak honela erantzun du: Dakizunez auzoz-auzoko dinamika martxan jarri da legealdi honetan, eta auzo bakoitzean koordinatzailea edo arduradun bat egotea nahi da, eta auzoz-auzoko bilerak egiten direnean nahi da lehenengo puntu bezala atez atekoa gaia tratatzea, eta gogorarazi du bilera hauek irekiak direla.

Santamaria jaunak, Asenjo jaunak konposta guneak aipatu duenez eta bost gune berri jarriko direla, adierazi du aste honetan kexa etorri zaiela Oreja parkean jarri den konpostadoragatik eta galdetu du ea bilera egin den.

Asenjo jaunak erantzun dio gaur egin dela bilera, kexatzen direla etxetik gertu dagoela irizten dutelako, eta Oreja parkean jartzeko eta lekua erabakitzeko irizpide teknikoak soilik kontuan izan direla, eta bukatu du esanez saiatu direla herriko gune guztietan jartzea, baina adibidez Majori gunean ere jarri nahi zela baina bi familia bakarrik apuntatu zirela, eta horregatik jarriko direla bakarrik familiak apuntatzen diren lekuetan.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.